

**<< Euskal Ondare Artistikoa >>**

**J. Viar – J. J. Bakedano**  
**Área 1- Patrimonio Cultural**

**1. arloa: Kultura Ondarea**  
**(Euskarazko bertsioa)**

**Octubre, 2003ko urria**



## **EUSKAL ONDARE ARTISTIKOA**

Euskal ondare artistikoari buruzko alderdiek helburu hauek dituzte:

- ondarea ezagutzea eta katalogazio homogeen eta zentralizaturik zehatzena egitea,
- ahalik eta hobekien zaintzea eta babestea,
- lurraldearena izate horretan egonkortasun handiena lortzea; beti gorabeheren mende egoten da, batez ere, galera-arriskuak direla eta, baita legezkotasunari dagokionez ere, ondare pribatuen kasuan bereziki,
- ondarea aberastea, eta
- zabaltzea eta jendeak ahalik eta hobekien gozatzea.

Aipatzen diren alderdirik garrantzitsuenak hauek direla aurrera dezakegu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan interes artistikoko ondasunen definizio zehatza eta positiboa egitea
- Inbentario-sistema bateratua sortzea eta hura abian jartzea
- Ondare pribatua egonkortzea eta handitzea, hain zuzen, hura zabaltzea, lurraldean egotea eta jendeak gozatzea bultzatuko duten neurri fiskalen bidez

Eginkizun horiek 7/1990 LEGEAN, uztailaren 3koan, Euskal Kultura Ondareari buruzkoan (1990eko abuztuaren 6ko EHAO), aurreikusten diren baldintza eta erakundeetara egokituta daude, ondoren adierazten diren salbuespenekin. Salbuespenak zuzendu edo zehaztu egin beharko lirateke ondorengo legegintza-jardueretan, ondarearen berezitasun kultural apartari eragiten baitiete.

## **DEFINIZIOA**

Euskal Ondare Artistikotzat hartzen da une jakin batean Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ondasun-multzoa, edota euskal herritarrek EAEn egina edo sortua edo beste kultura-komunitate batzuek edo batzuetan egina edo sortua izan dena, eta kalitateagatik kulturalki baliosutzat har daitekeena, eta euskarri artistiko tradizioaletan –pintura edozein materialetan, eskultura, marrazkia, grabatua, altzariak, luxuzko artea, urregintza, zeramika, tapizak– zein euskarri artistiko modernoetan – kontzeptu-instalazioak, ikus-entzunezko euskarriak, ikusizko literatura, kartelak, beren esanahiagatik tipifikatutako moda-objektuak– adierazten dena, eta unibertsalki adostutako eta, betiere, zabalean interpretatutako kontzeptuak kontuan hartuta.

Ondare Artistikoaren kontzeptuak, Kultura Ondarearen edo Historia Ondarearen kontzeptuekin alderatuta, kontuan hartu beharreko ondasunari kalitate-elementu bat ematen dio, batzuetan haren

bitxikeriarekin batera, eta besteetan adierazpen-bizitasuneko eta -sakontasuneko elementua ematen dio, eta horiek lekukotasuna adieraztetik harantzago joaten dira.

Ondare Artistikoaren kontzeptuaren barruan sartzen dira ondasun higiezinak –eraikinei erantsitako eskulturak, horma-irudiak–, higigarriak eta bi kontzeptuen artean non kokatu zailak egiten direnak, adibidez, erretaulak.

Ondare Artistikoaren kontzeptuak ondasun publikoak, erdipublikoak eta pribatuak hartzen ditu.

Ondare Artistikoaren kontzeptua, definitu berri den bezala, antzinako kronologiei dagokienez, Ondare Arkeologikoarekin gainjar daiteke eta horregatik muga kronologiko batzuk ezarri beharko genituzke bi ondasun-multzoak mugatzeko. Egun, 7/1990 LEGEAN Ondare Arkeologikoa definitzean, ondarea metodologia arkeologikoaren bidez aztertu den ala ez kontuan hartzen da. Baina objektu arkeologiko asko artistikoak dira, eta orduan bi aukera izaten dira; bi ondare-taldeetan katalogatzea, edo muga kronologikoen arabera definitzea.

Ondare Artistikoaren kontzeptua, sabaien eta hormen eskultura- eta apainketa-alderdi batzuetan, Ondare Arkitektonikoarekin gainjar daiteke Monumentugunearen kontzeptuaren bidez, eta liburuak edertzean eta irudiz hornitzean Ondare Bibliografikoarekin, 7/1990 LEGEKO 66. artikuluan, lan artistikoak aipatzen dituenean, ondorioztatzen den bezala. Horretaz ere Ondare Arkeologikoaz esan duguna esan daiteke katalogatzeko bikoiztasunari dagokionez.

Aipatutako definizioa eta dokumentu honetan aipatzen diren alderdi guztiak Arte Plastikoei bakarrik egiten die erreferentzia. Dekorazio Arteak eta Luxuzko Arteak Arte Plastikoen barruan daude.

## **AURREKARI HISTORIKOAK**

Ondarearen kontzeptua, gutxi gorabehera zehaztua, eta bereziki kultura-ondareari edo ondare historiko eta artistikoari aplikatua, antzinatek dago, baita gizakiari eta haren historiari buruzko datu zehatzak eta ordezkak dituen eta transmititzen dituen ondasun besterenezin gisa zaintzeko kontzeptua ere.

Ondare historikoa eta artistikoa zaintzearen kontzeptu modernoaren jatorria XIX. mendekoa da; gizarte-egituren eta pentsamoldeen eraldaketek, bai eta Frantziako Iraultzako ekintza bandalikoan ondoren egon zen gogoetak ere, iraganeko monumentuak zaintzeari aurre egiteko beharra gizartearen eragin handiko eta administrazio publikoaren parte-hartzea eskatzen zuen eginkizuntzat hartu zen.



Europako hainbat estatuk izenpetutako testu legal garrantzitsu batzuk badaude ondarea babestera bideratuak. Espainiako Estatuari dagokionez, historiako hainbat egoerek sortutako zailtasunak gaindituz, zatikako lege-xedapenekin, gaiari buruz ez zen lege orokorrik egitea lortu 1933 arte, Altxor Artistiko Nazionala babesteko Legea (Ley de Protección del Tesoro Artístico Nacional) aintzat hartu zen arte. Lege hori estatuko ondarea indarrez ebasteari eta hondatzeari aurre egiteko behar larriaren ondorioz egin zen.

1975. urtetik aurrera eta legegintza- eta instituzio-arloko beste aldaketa batzuekin batera, ondare historikoaren arloan aldaketa garrantzitsuak egin ziren, 1978ko Konstituziotik hasita. Garai berri horrek gailurra ukitu zuen 1985ean Espainiako Ondare Historikoaren 16/1985 LEGEA egin zenean.

Baina Estatuko ordenamendu juridikoan, LEGE hori eta haren Errege Dekretuak, Ondare Nazionalaren Legea eta haren Araudia lege-multzoaren zati bat besterik ez dira, horiez gain hauek ere bai baitaude: Estatuak sinatutako eta berretsitako Nazioarteko Araudiak eta Autonomia Erkidegoen Araudia. Azken hori, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 7/1990 LEGEAK, gogoeta hauen oinarritzat adierazi dudana, eta 234/1996, 204/1998, 306/1998, 342/1999 eta 232/2000 Dekretuek osatzen dute. Estatuko 16/1985 LEGEAren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 7/1990 LEGEAren testuen artean ondare-ondasunen kontzeptuak azaltzean desberdintasun garrantzitsua dago. Estatuko legeak Kultura Ondarea osatzen duten objektuei aplikatzeko hiru gradu adierazten ditu, haien garrantziaren arabera, garrantzi handienetik gutxienera hauek dira: Interes Kulturalako Ondasunak, Ondasun Inbentariatuak eta Ondare Historikoak diren ondasunak, baina deklaritzen ez direnak eta inbentariatuak ez direnak. EAEko legeak, berriz, bi hauek bereizten ditu, garrantzi handienekotik txikienera: Kultura Ondasun Kalifikatua eta Kultura Ondasun Inbentariatua.

## **7/1990 LEGEAN JASOTAKO EUSKAL KULTURA-ONDAREAREN DEFINIZIOARI ETA HAREN BESTE ALDERDI BATZUEI BURUZKO OHARRAK**

7/1990 LEGEAK Euskal Kultura Ondarea definitzean –logikoki Ondare Artistikoa haren zati da–, Euskal Herriaren nortasunaren adierazgarria dela eta kultura unibertsalari egiten zaion ekarpena dela dio. Euskal Kultura Ondareztat ere hartzen da, euskal kulturarekin lotuta, beste lurralde edo estatu batena den ondarea, I. tituluko 8. artikuluko 2. puntuan eta bigarren xedapen gehigarrian adierazten denez.

Kontzeptu horren berebiziko garrantzia ulertuta ere, egoera jakin batzuetan dagoen kultura-ondarearen aipamenaren hutsunea sumatzen da; Euskal Autonomia Erkidegoak zaintzen duen kultura-ondarea, hain zuen, gordetzea, handitzea eta zabaltzea merezi duena, baina euskal herritarrek sortu ez dutena, eta haren nortasunaren euskarria ere ez dena, baina bai kultura unibertsalaren parte, eta une jakin batean, nahiko modu egonkorrean, Euskal Herriaren kultura-ondasunaren parte dena. Euskal Autonomia Erkidegoko bilduma publikoetan eta pribatuetan euskal artea ez dena, eta zorionez kulturari dagokionez aparteko garrantzia duena, eta euskal herritarrontzat harro egoteko arrazoia dena, zehaztasun gehiagoz jaso beharko litzateke garrantzizko lege-xedapen batean, aipatutako LEGEAN arrazoirik gabe kanpo utzi dutela zuzentzeko.

Kanpoko Kultura Ondarea, orokorrean, LEGEAn leku bakarrean aipatzen da, eta, gainera, aurreko definizioekiko anbiguoki kontraesanean dago; hain zuzen, I. tituluko 2. artikuluan: "Balio historikoa, artistikoa, urbanistikoa, etnografikoa, teknikoa eta soziala duten, eta beraz, babestea eta zaintzea merezi duten interes kultureko ondasun guztiek osatzen dute kultura-ondarea."

Proposatutako definizioan, Euskal Ondare Artistikoaren unibertsaltasuna –Euskal Herriko artetzat hartu edo ez– argi uzten saiatzen da, eta horrekin, aldi berean, euskal sormen artistikoaren balio unibertsala nabarmendu nahi da, gainerako herri edo lurraldeekiko berdintasun-egoeran tratatuta. Horrek ez du esan nahi euskal kulturaren alorrean sortutzat ditugun ondasun artistikoen izaera berezia aipatu behar ez denik eta arreta berezia egin behar ez zaienik.

Horrez gain, beste gabezia nabarmen bat ere badu LEGEAK: ez du Ondare Artistikoaren aipamen espliziturik egiten, ez eta definitzen ere, eta hari buruzko erreferentzia bakarra, aipatu ere egin gabe, III. kapituluan –"Museoei buruz"– dagoela dirudi, bai eta museoei buruzko aipamenak egiten direnean ere, eta goian aipatutako 2. artikuluaen paragrafoan. Zalantzarik gabe, haren babesa Kultura Ondarea termino generikoan islatuta dago, bai eta hura babestera, zaintzera, aberastera eta hedatzera bideratutako xedapen guztien bidez ere, baina arrazoirik gabe eta nabarmen ahaztu da haren berezitasun baliotsua.

LEGE autonomikoaren beste gabezia bat –Ondare Artistikoari eragiten dio– "ondasun higigarriaren" definizioaren hutsunea da, eta Ondare Historikoaren Espainiako Legeak ere badu gabezia hori, beraz, Kode Zibilera jo behar dugu. Kode Zibilaren 335. artikulua honela definitzen ditu ondasun higigarriak: "oro har, alde batetik bestera eraman daitekeena hari lotuta dagoen objektu higiezinari kalterik egin gabe". Ondare Artistikoaren alde handi bat ondasun higigarriaren kontzeptuaren barruan geratzen da; beraz, komeni da definizio positibo bat ezartzea.

Dena den, kontuan eduki behar dira interes kulturalako ondasunen –kalifikatuak edo inbentariatuak– hiru kategoriak: A) Monumentua, B) Monumentugunea, eta C) Kulturgunea.

A) MONUMENTU dira, 7/ 1990 LEGEAREN arabera, banan-banan hartuta interes kulturala duten ondasun higigarri zein higiezin guztiak. Baina ez da "ondasun higigarria" kontzeptuaz ezer esaten; horregatik, lehen esan bezala, Kode Zibilera jo behar da. Ondare Artistikoan ondasun higigarriek duten garrantzia hain da handia ezen, definizio zehatz eta positiboa egin behar dela haientzat. Adibidez, museoetako ia eduki guztia ondasun higigarria da, tokian bertan egindako horma-irudiak edo eskultura arkitektonikoak –adibidez, kapitelak edo figurazko zutabeak– izan ezik, eta horiek, bestalde, jatorrizko lekutik kenduz gero izaera aldatzen dute eta ondasun higigarri bihurtzen dira, baita erretaulak ere.

Orobat esan behar da estatuan indarrean dagoen legediarentzat, estatuko legediarentzat zein autonomikoarentzat, ondare kultural arkitektonikoa edo higiezina besterik ez dagoela, eta legeak haren arabera egin direla dirudi. Artearen ikuspuntutik –artistikoa denak (giza espirituak egindakoaren esparruan) historikoa edo testigantzakoa denak baino maila handiagoa erdiesten du–, objektu mugikorrek oso garrantzitsuak dira eta tratamendu berezia eta esplizitua merezi dute.

B) eta C) MONUMENTUGUNEA eta KULTURGUNEA kontzeptuak ONDARE ARTISTIKOA kontzeptutik urruntzen direla dirudi, horiek arte plastikoak –batez ere, ondasun artistiko higigarriak– gutxiago hartzen baitituzte kontuan –edo bat ere ez–, eta gehiago ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa, edo bestelako arteei buruzkoa. Monumentugunearen kasuan, ordea, ondasun higigarriak eta higiezinak eta artistikoak eta arkitektonikoak nahasita daude eta bereizi ezinak dira gunea osotasunean mantendu behar denean.

## **JABETZAREN BANAKETA**

Ondare artistikoaren jabetza askotarikoa da eta, sektore pribatuan, aldaketa handiak pairatzen ditu eta jabeek izugarrizko erreparoa dute –arrazoi politikoengatik, fiskalengatik edo soilik intimitatea babestearren–. Horrek denak inbentarioa egitea zailtzen du. Baina jabetza pribatuaren malgutasunak sortutako ondare-gorabeherak ahalik eta gehien konpontzeko, garrantzitsua izango litzateke egoera legal egokia sortzea ondare pribatua azaleratzeko, lurraldean egonkortzeko eta publikoki hedatzeko, aipatutako euskal LEGEAK hura zaintzea eta deklaratzeko behartzen duela kontuan hartuta.



Ondare publikoari dagokionez, arazoa, heltzeko zaila izan arren, txikiagoa da; inbentarioak bateratu behar dira eta hainbat administrazioen esku dauden datuak elkartu.

#### A) - JABETZA PUBLIKOA

- EUSKO JAURLARITZA
- FORU-ALDUNDIAK
- UDALAK
- MISTOAK
- KULTURA-ERAKUNDE AUTONOMIKOAK
- EUSKAL MUSEOAK
- LURRALDE AUTONOMOAN DAUDEN ESTATUAREN ERAKUNDEAK
- ESTATUAREN JABETZAKO EDO ESTATUAREN ETA AUTONOMIAREN JABETZA MISTOKO MUSEOAK ETA BESTELAKO KULTURA-ERAKUNDEAK
- GOBERNUKO ORDEZKARITZAK
- ENPRESA PARAESTATALAK

#### B) JABETZA PRIBATUA

##### B.1 ELIZAREN ONDAREA

- ONDARE ARKITEKTONIKOAN SARTUTA
- BEREIZIA
- ELIZBARRUTIKO MUSEOETAN, ELIZAREKIN LOTUTAKO ELKARTEETAN (LABAYRU, ETAB.)

##### B.2 ENPRESAK

- INDUSTRIALAK ETA MERKATARITZAKOAK: BANKUAK, AURREZKI-KUTXAK, BURDINGINTZAKOAK, ONTZI-ENPRESAK, TREN-ENPRESAK, ELEKTRONIKA-ENPRESAK, TELEFONO-ENPRESAK, GARRAIO-ENPRESAK, KOMUNIKABIDE-ENPRESAK
- KULTURA- ETA JOLAS-ELKARTEAK: GIPUZKOAKO ATENEOA, SOCIEDAD BILBAÍNA, KASINOAK, ZEZENZALEEN ELKARTEAK
- POLITIKOAK: BATZOKIAK, ALKARTETXEAK, HERRI-ETXEAK, etab.
- ERLIJO-ENPRESAK, KOFRADIAK, etab.

##### B.3 FUNDAZIO PRIBATUAK

##### B.4 PARTIKULARRAK

## LEHENTASUNEZKO EKINTZAK

### 1) ONDAREA ETA HAREN IZAERA, KOKAPENA, JABETZA, ZAINTZE-EGOERA ETA BALORAZIOA EZAGUTZEA (*ikus fitxa*).

Jabetza publikoko ondasun artistikoek bi lan eskatzen dituzte: inbentariatu zentralizatua edukitzea eta nortasun-fitxak sistematikoki idaztea. Artxiboetako datuak bildu eta datu-banku homogeneo eta zentralizatua egitea da kontua.

Euskal Kultura ondarean sar daitezkeen jabetza pribatuko ondasun artistikoak deklaratzeko beharrezkoa da 7/1990 LEGEAREN 37. artikuluko 3. puntuan esaten denez, baina legearen alderdi hori ez da betetzen jabe askok beren ondarea azaleratzeko duten erreparagatik, gizarte-, politika- eta zainketa-arrazoiengatik, eta karga fiskalekiko beldurragatik. Elizaren ondarea guztiz inbentariatua dago, Bizkaian behinik behin.

Errealitatea hobeto ezagutu nahi bada, konfiantza-klima sortu behar da eta artearen jabetzaren irudia aldatu; jabetza hori pizgarri fiskalekin edo bestelako ordainekin saritu behar da, artearen jabetza deklaratzeko onuragarria izan dadin jabearentzat.

### 2) EUSKAL LURRALDE AUTONOMIKOAK ONDAREAREKIN DUEN JABETZA-EGOERA EGONKORTZEA

Honi dagokionez, esan dezakegu jabetza publikoko ondasun artistikoak katalogatze-, zaintze- eta hedatze-jarduerak fidagarria egiten duten erakundeen babesean zainduta eta egonkor daudela. 7/1990 LEGEAREN I. kapituluaren 27. artikuluko ondasun horiek argi uzten ditu jabetza publikoko erregimenean babestuta. Elizaren ondarea ere ezin da lekuz aldatu, baina hori askotan erakundeen ekintzen arabera egoten da. Arazo nagusia enpresa eta partikularren ondare pribatuarekin dago. Artelanen jabeek beren ondasunak publiko egiteko duten erreparoiari –lehen aipatu dugu– aurre egiteko modu bakarra da egungo egoera aldatuko duen eta, zigortu beharrean, objektu artistikoak edukitzea eta erostea sustatuko lukeen tratamendu fiskala ematea, eta hori izango litzateke artelanak zaintzeko lehen urratsa. Ondare artistikoa ondare pribatuak ere osatzen duela eta euskal erkidegoaren mesedetarako dela bere lurraldean gordetzea, bi alderdi horietaz jabetzeak bakarrik ekarriko du ondasunak azaleratzeko, lurraldean gordetzea eta handitzea bultzatuko duten lege-xedapen eskuzabalak egitea.

7/1990 LEGEAREN II. tituluan esaten da kultura-ondasunak, lehen esan bezala, bi motatakoak direla: Kultura Ondasun Kalifikatuak eta Kultura Ondasun Inbentariatuak; lehenengoak garrantzitsuagoak dira kulturaren alorrean. Titulu horretan, Kultura Ondasun Kalifikatuak definitzean esaten da "haiek babestea herriari dagokiola "; baina ataletan aipamen nagusia, bakarra ez esateagatik, higiezinei buruzkoa da.

Alabaina, LEGE horren III. tituluak, esku pribatuetan daudelako, sal daitezkeen kultura-ondareko elementuak babesten ditu, Eusko Jaurlaritzaren desjabetze-eskubidearen bidez eta lehentasunez eskuratzeko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiliz berarentzat edo beste erakunde publikoentzat. Gainera, titulu horren 20. artikuluko 1. puntuan Kultura Ondasun Kalifikatuak eta Inbentariatuak dituztenei ondasunak zaintzea eta babestea behartzen zaie.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lehentasunez eskuratzeko eta atzera eskuratzeko eskubideei dagokienez, eta estatuaren aurrean, 3069/1980 Errege Dekretuak, irailaren 26koak, mugatzen ditu eta honela dio eranskinean: derrigorrezko desjabetzeari eta erosteko lehentasunezko eskubideari dagokionez, Estatuak EAEaren eskubideak subroga ditzake Erkidegoak eskubide horiek erabiltzeari uko egiten badiu. Autonomia Erkidegoak erosteko lehentasunezko eskubidea erabiltzeari uko egiten diola ulertuko da, baldin eta indarrean dagoen legeriak horretarako ezarritako epearen lehen erdian eskubidea erabiltzen ez badu."

### 3) ONDARERA ERRAZAGO IRISTEA SUSTATZEA

#### JARDUERA-MEKANISMOAK

##### 1) JABETZA-MAPA EGITEA

- ONDARE ARTISTIKOAREN JABE PUBLIKO ETA PRIVATU POTENZIAL GUZTIEN IZAERA ZEHATZA EZARTZEA

##### 2) ONDASUNA IDENTIFIKATZEKO FITXA BATERATUA EGITEA

- ONDASUNAREN IZAERA, EGILEA, KRONOLOGIA, DESKRIBAPEN FISIKOA, JATORRIA, JABETZA, KOKAPENA, ZAINTZE-EGOERA, ONDARE-INTERESA, BALORAZIOA (Ikus museoko fitxa).

3) INBENTARIO ZENTRALIZATUA EGITEA ETA DATUAK BILDU ETA FITXA BATERATUETAN ISLATZEA, LEHENDIK INBENTARIATUAK DAUDEN JABETZA PUBLIKOKO EDO PRIVATUKOETATIK HASITA.

4) ONDASUN ARTISTICO KALIFIKATUEN ERREGISTROA ETENGABE HANDITZEA, EZAGUNAK IZAN DAITEZEN ETA INTERES KULTURALEKO GERO ETA ONDASUN ARTISTIKO GEHIAGO EGON DAITEZEN LEGEDIPEAN

3) ONDARE ARTISTIKOA HANDITZERA ETA ZAINZERA BIDERATUTAKO ARAUDIA EGITEA

- ONDARE ARTISTIKOA EDUKITZEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EMATEA (7/1990 LEGEAREN 104. artikulua)

- ARTEA ETA ANTIGOALEKO GAUZAK EROSTEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EMATEA (ZEHARKAKO ZERGAK, BEZa: Subjektu pasiboak pertsona fisikoa zein juridikoa izan, BEZa kendu ahal izatea artea salerostean: jasandako BEZa - sortutako BEZa, edo alderantziz, beste edozein jardueretan bezala. Ogasun Sailak gehiago bilduko luke, faktura guztiak ofizialak izango bailirateke.

ZEHARKAKO ZERGAK, PFEZa: Artelanen salerosketak gainerako jarduerak bezalako tratamendua izatea, gainbalioa positiboa edo negatiboa izateko aukera egon dadin.

ONDAREAREN ZERGAK: Artelanez zergak ordainduko lituzkete, baina ez lukete kotizatuko, ez behintzat lau edo bost urteko epe jakin batean, ondarea azaleratzea errazteko.

Artelantzat 5/2003 FORU-ARAUDIKO, martxoaren 26koa, 82. artikuluko xedapena, A eta B atalak, baliogabetzea. Xedapenean zerga-mota hauek arautzen dituen araudia aldatzen da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Irabaziekiko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Ondare-transmisioen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Honela dio artikulua horrek:

## **"VIII. kapitulua**

### **ONDAREZKO SOZIETATEAK**

#### **82. artikulua**

66. artikulua aldatu da eta honelaxe geratu da:

«66. artikulua.»-*Ondarezko sozietateen araubidea.*

1. Ondarezko sozietateetatik ondoko baldintzak betetzen dituztenak hartuko dira:

a) Beren aktiboaren erditik gora baloreak izatea, edo beren aktiboaren erditik gora ekonomia-jarduerei lotuta ez egotea.

Ekonomia-jarduerarik dagoen ala ondarezko elementu bat horri lotuta dagoen zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari erreparatuko zaio.

Hala aktiboaren balioa nola ekonomia-jardueri lotu gabeko ondarezko elementuen balioa kontularitzatik ondorioztatzen dena izango da, betiere, kontularitzak sozietatearen benetako ondare-egoera zintzoki islatzen badu.

Aktiboaren zein zati balorez edo lotu gabeko ondarezko elementuz osatuta dagoen zehazteko:

a') Ez dira ondoko balore hauek zenbatuko:

- Lege eta arautegien ondoriozko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.
- Ekonomia-jardueren garapenaren ondorioz ezarritako kontratu-harremanetatik sortutako kreditu-eskubideak dakartzatenak.
- Bere xede den jardueraren ariketaren ondorioz balore-sozietateek edukitzen dituztenak.
- Gutxienez boto-eskubideen 100eko 5 ematen dutenak eta partaidetza zuzendu eta kudeatzeko edukitzen direnak, betiere, ondore horietarako, bitarteko material eta giza baliabideen antolamendu egokia edukitzekotan, eta parte hartzen deneko erakundea letra honetan sartuta ez egotekoan.

b') Ez dira balore gisa, ez eta ekonomia-jardueri lotu gabeko elementu gisa ere zenbatuko, baldin eta beren erosketa-prezioak erakundeak lortu eta banatu gabeko mozkinen zenbatekoa gainditzen ez badu, betiere, mozkin horiek ekonomia-jarduerak egitetik etortzekotan, urtean bertan eta aurreko hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugarekin. Ondoren hauetarako, ekonomia-jardueretatik datozen mozkinen parekotzat jotzen dira arestiko lerroaldeko azkeneko etenak hizpide dituen baloreetatik datozen dibidenduak, parte hartutako erakundeak lortutako diru-sarrerak, gutxienez 100eko 90, ekonomia-jardueretatik datozenean.

b) Kapital sozialaren 100eko 50etik gora, zuzenean zein zeharka, hamar bazkide edo gutxiagorena edo familia-multzo batena izatea, ondore horietarako, ezkontidea eta laugarren graduraino, berori barne, odolkidetasunez edo kidetasunezko lerro zuzen zein zeharrekoan ahaidetasun loturak dituzten gainerako pertsonak sartzten direla ulertuta.

Atal honek hizpide dituen ingurumariak sozietatearen jarduneko laurogeita hamar egunetik gora gertatu behar dira.

2. Araubide hau ez zaie aplikatuko bazkide guztiak pertsona juridikoak diren eta, aldi berean, ondarezko sozietateak ez diren sozietateei, edo Zuzendaritza Publikoko pertsona juridiko bat kapitalaren 100eko 50etik gorakoaren titularra denean. Halaber, ez dira aplikatuko Sozietatearen partaidetzaren balore adierazgarriak Baloreen Merkatuko 24/1988 Legean, uztailaren 28koan, aurreikusitako bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauden zergaldietan ere.
3. Ondarezko sozietateek zerga honengatik ordainduko dute, hurrengo bi artikuluetan esango diren espezialitateak kontuan hartuta."

- ONDAREA ZAHARBERRITZEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EDO LAGUNTZAK EMATEA
- KULTURA-ERAKUNDE PUBLIKOEI DOHAINTZAK EMATEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EMATEA (Dohaintzaren balioaren % 30-40eko kenkaria. Orain % 20 desgrabatzen da).
- ZERGAK ORDAINTZEKO EMATEAK SUSTATZEA
- OINORDETZEN GAINEKO ZERGAK ARTELANEN BIDEZ ORDAINTZEA
- EUSKAL KULTURAREN EDO NORTASUNAREN PARTE DEN ONDARE ARTISTIKOA EDUKITZEAGATIK, EROSTEAGATIK EDO DOHAINTZAN EMATEAGATIK TRATAMENTU FISKAL BEREZIA EMATEA (Eskuratutako lanaren balioaren % 30eko kenkari fiskala, betiere, lehentasunezko interes kulturelekoa bada, hau da, Kultura Ondasun Kalifikatua bada.

Dohaintza artistikoaren balioaren % 40-50eko kenkari fiskala, idazpuru honen goiburuan esaten denaren arabera interes berezikoa bada. Orain % 20 desgrabatzen da).

#### *4) ONDAREA LURRALDEAN EGONKORTZEKO ARAUDIA GARATZEA:*

- LEHENDIK DAGOEN ONDARE PRIBATUA KATALOGATZEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EMATEA
- DEKLARATU GABEKO ONDARE ARTISTIKOEI AMNISTIA FISKALA EMATEA
- ONDARE PRIBATUA ERAKUNDE PUBLIKOEK ESKURATZEA (7/1990 LEGEA: 102. artikulua, 3. puntua; 103. artikulua)
- DESJABETZEKO, LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO ETA ATZERA ESKURATZEKO ESKUBIDEAK (7/1990 LEGEA: III. titulua, 21. artikulua; 25. artikulua)

#### *5) JENDEA ONDARERA ERRAZAGO IRITS DADIN ETA HARTAZ GOZA DEZAN LORTZEKO ARAUDIA EGITEA:*

- MUSEO ETA ERAKUSKETA-ARETO PUBLIKOETAN ALDI BATERAKO UZTEAGATIK PIZGARRI FISKALAK EMATEA

6) *BABESTEKO ETA HERTSATZEKO ARAUDIA EGITEA HAUENGATIKO ESPOLIAZIO-ARRISKUAK ERAGOZTEKO:*

- IRUZURREZKO MERKATARITZA
- LAPURRETAK
- HONDATZEA, DELA KAUSA NATURALEK EDO DELA KRIMINALEK ERAGINDA
- FALTSUTZEA

7) *ERTZAINZAK ONDAREA BABESTEKO BRIGADA SORTZEA. Orain ez dago.*

### **EGUNGO EGOERA (2003KO URRIA)**

7/1990 LEGEAK zerbitzu hauek sortu ditu

- KULTURA-ONDASUN KALIFIKATUEN ERREGISTROA
- KULTURA-ONDASUNEN INBENTARIO OROKORRA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren EUSKAL KULTURA-ONDAREAN ZENTROAn sartuta daude, bai eta hau ere

- MUSEOEN SISTEMA NAZIONALA,

Ondare artistikoak erakunde horietan guztietan du parte.

*Bibliografia erantsita dago.*

## BIBLIOGRAFIA

*50 años de protección del patrimonio histórico-artístico, 1933-1983.* Madril, Kultura Ministerioa, 1933.

ABAD LICERAS, José M<sup>a</sup> : *La protección del patrimonio inmobiliario histórico en el ordenamiento jurídico vasco: análisis y propuestas legislativas.* Vitoria-Gasteiz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP), 2002.

--: *Administraciones locales y patrimonio histórico.* Madril, Montecorvo, 2003.

ALEGRE ÁVILA, Juan Manuel: *Evolución y régimen jurídico del patrimonio histórico: la configuración dogmática de la propiedad histórica en la ley 16/1985, de 25 de junio, del patrimonio histórico español.* Madril, Kultura Ministerioa, 1994.

ALONSO IBÁÑEZ, María del Rosario: *El patrimonio histórico: destino público y valor cultural.* Madril, Civitas, 1991.

ÁLVAREZ ÁLVAREZ, José Luis: *El patrimonio artístico español.* Valladolid, Miñon, 1975.

--: *Estudios sobre el patrimonio histórico español y la ley de 25 de junio de 1985.* Madril, Civitas, 1989.

--: *La naturaleza jurídica de los bienes culturales y sus consecuencias económicas y fiscales.* Madril, Junta de Decanos de los Colegios Notariales de España, 1989.

ARIAS ÉIBE, Manuel José: *El patrimonio cultural.* Granada, Comares, 2001.

BALLART HERNÁNDEZ, Josep: *El patrimonio histórico y arqueológico: valor y uso.* Bartzelona, Ariel, 2002.

--: *Gestión del patrimonio cultural.* Bartzelona, Ariel, 2001.

BARRERO RODRÍGUEZ, Concepción: *El ordenamiento jurídico del patrimonio histórico.* Madril, Civitas, 1990.

BENÍTEZ DE LUGO Y GUILLÉN, Félix: *Patrimonio cultural español: (aspectos jurídicos, administrativos y fiscales).* Granada, Comares, 1988.



--: *El patrimonio cultural español: aspectos jurídicos, administrativos y fiscales. Incentivos en la Ley de Fundaciones*. Granada, Comares, 1995.

*BIENES públicos: normas generales*. Madrid, Tecnos, 2000.

*CONVENCIONES y recomendaciones de la UNESCO sobre la protección del patrimonio cultural*. Peru, UNESCO, 1986.

FARIÑA TOJO, José: *La protección del patrimonio urbano: instrumentos normativos*. Madrid, Akal, 2000.

GARCÍA ESCUDERO, Piedad; PENDAS GARCÍA, Benigno: *El derecho del patrimonio histórico: teoría general*. Madrid, Kultura Ministerioa, 1986.

--: *El nuevo régimen jurídico del patrimonio histórico español*. Madrid, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 1986.

GARCÍA FERNÁNDEZ, Javier: *Legislación sobre patrimonio histórico*. Madrid, Tecnos, 1987.

GONZÁLEZ-UBEDA RICO, Gloria: *Aspectos jurídicos de la protección del patrimonio histórico-artístico y cultural*. Madrid, Kultura Ministerioa, 1981.

GONZÁLEZ-VARAS, Ignacio: *Conservación de bienes culturales: teoría, historia, principios y normas*. Madrid, Cátedra, 2.000.

GUISÁSOLA LERMA, Cristina: *Delitos contra el patrimonio cultural: artículos 321 a 324 del código penal*. Valentzia, Tirant lo Blanch, 2001.

GUTIÉRREZ NIETO, Ricardo: *Ley de protección del patrimonio histórico-artístico*. Madrid, Instituto Nacional de Prospectiva, 1980.

HERNÁNDEZ NÚÑEZ, Juan Carlos: *Los instrumentos de protección del patrimonio histórico español: sociedad y bienes culturales*. Jerez de la Frontera, Publicaciones del Sur, 1998.

HERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Francisca: *El patrimonio cultural: la memoria recuperada*. Gijon, Trea, 2002.

*LEY del patrimonio cultural vasco = Euskal kultur ondareari buruzko legea*. Vitoria-Gasteiz, Eusko

Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991.

*LEY del patrimonio histórico español*. Madril, Gorte Nagusiak, 1987.

MARTÍN REBOLLO, Luis: *El comercio del arte y la Unión Europea: la legislación española del patrimonio histórico y el mercado interior: la normativa comunitaria sobre exportación y tráfico de bienes culturales*. Madril, Fundación Universidad-Empresa, 1994.

*MECENAZGO y conservación del patrimonio artístico: reflexiones sobre el caso español*. Madril, Fundación Argentaria, 1995.

MORENTE DEL MONTE, María: *El Patrimonio cultural: una propuesta alternativa al concepto actual de patrimonio histórico*. Malaga, Malagako Unibertsitatea, 1996.

*NORMATIVA sobre el patrimonio histórico cultural*. Madril, Kultura Ministerioa, 1996.

*NORMATIVA sobre el patrimonio histórico cultural*. Madril, Kultura Ministerioa, 1998.

*NORMATIVA sobre el patrimonio histórico cultural: I. liburukia*, Madril, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2002.

*NORMATIVA sobre el patrimonio histórico cultural: II. liburukia*, Madril, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2002.

OROZCO PARDO, Guillermo: *La tutela civil y penal del patrimonio histórico, cultural o artístico*. Aravaca, McGraw-Hill Interamericana de España, 1995.

*PATRIMONIO cultural y derecho*. Madril, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1997.

*El PATRIMONIO cultural en el Consejo de Europa: textos, conceptos y concordancias*. Madril, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1999.

*PATRIMONIO histórico español*. Madril, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1989.

*PATRIMONIO histórico español*. Madril, Civitas, 1994.

*PATRIMONIO histórico español*. Madril, Civitas, 1996.

*PATRIMONIO histórico español*. Madril, Civitas, 2002.

*PATRIMONIO histórico español*. Madril, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003.

PEÑUELAS I REIXACH, Lluís: *El pago de impuestos mediante obras de arte y bienes culturales: la dación de bienes del patrimonio histórico español*. Madril, Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales, 2001.

PÉREZ DE ARMIÑÁN Y DE LA SERNA, Alfredo: *Las competencias del Estado sobre el patrimonio histórico español en la Constitución de 1978*. Madril, Civitas, 1997.

RIBAGORDA SERRANO, Miguel: *Patrimonio cultural*. Madril, Thomson Paraninfo, 2002.

ROJO ÁLVAREZ-MANZANEDA, Leticia: *Instrumentos jurídicos para la protección del patrimonio histórico-artístico y cultural*. Granada, Comares, 2001.

SALINERO, Carmen: *La protección del patrimonio histórico en el Código Penal de 1995*. Bartzelona, Cedecs, 1997.

## HITZALDIAK, BILTZARRAK, IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK

*ACTAS de las I Jornadas de Patrimonio Histórico-Artístico.* Burgos, Consejo General de Castilla, 1983.

*ACTAS de los VII Cursos sobre el Patrimonio Histórico: Reinosa, 1996ko uztaila-abuztua.* Santander, Kantabriako Unibertsitatea, 1997.

*ACTAS de los VIII Cursos sobre el Patrimonio Histórico: Reinosa, 1997ko uztaila-abuztua.* Santander, Kantabriako Unibertsitatea, 1998.

*ACTAS de los IX Cursos Monográficos sobre el Patrimonio Histórico: Reinosa, 1998ko uztaila-abuztua.* Santander, Kantabriako Unibertsitatea, 1999.

*ACTAS de los X Cursos Monográficos sobre el Patrimonio Histórico: Reinosa, 1999ko uztaila.* Santander, Kantabriako Unibertsitatea, 2000.

*ACTAS de los XI Cursos Monográficos sobre el Patrimonio Histórico: Reinosa, 2000ko uztaila.* Santander, Kantabriako Unibertsitatea, 2001.

*JORNADAS sobre el Patrimonio Histórico.* Madril, Fundación Cultural Banesto, 1994.

*El PATRIMONIO histórico artístico español: Actas del Congreso celebrado en Logroño del 12-14 de septiembre de 2001.* Madril, Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales, 2002.

*La PROTECTION juridique internationale des biens culturels: Actes du treizième Colloque de Droit Européen, Delphes, 1983ko irailak 20-22.* Strasbourg, Europako Kontseilua, 1984.

## KATALOGAZIO- ETA DOKUMENTAZIO-DEPARTAMENTUA

Inbentario-zk.  
Beste zenbaki  
batzuk  
Honekin lotura duten  
objektuen inbentario-  
zenbakiak

Objektua

Egilea (k)  
Egilearen lekua  
eta datak  
Eskola  
Bestelako izendap.

Lanaren izenburua

Deskribapena

Teknika  
Materiala edo  
euskarria  
Teknikaren zehaztasuna  
Tailerra  
Urtzailea/Inprimatzail  
ea  
Argitaratzailea  
Ale-kopurua

Neurriak

Sinatua  
Data jarrita  
Bestelako  
inskripzioak

Data  
Garaia  
Estiloa  
  
Argitaratze-data  
Sarrera-modua eta  
-jatorria  
Sarrera-data

**Azken jabea**  
**Sarrerari buruzko**  
**zehaztapenak**

**Sartutako unean**  
**egindako**  
**balorazioa**  
**Azken balorazioa**

**Bestelako balorazioak**

**Objektuaren**  
**historia**

**Zaintze-egoera**  
**Egindako tratamenduak**  
**Iruzkinak**  
**Data**  
**Zentroa**  
**Nork egina**

**Kokapena**  
**Mailegua**  
**Gordailua**

**Erakusketak**

**Erreferentzia bibliografikoak**

**Erreferentzia dokumentalak**

**Irudien artxiboa**